



ENERGIAREN TXIKIZKAKO MERKATUAK

Gas eta argindar tarifak bilatzerako orduan **bi merkatu** ezberdin daude espainiar estatuan, arautu edo erregulatua eta askea:

Merkatu arautua: bere joko **arauak** gobernuak ezartzen ditu. Bertan **Erreferentziazko Merkaturatzaileek** soilik egin dezakete lan, energia enpresa-talde **handien** "filial erregulatu" modukoak.

ERREFERENTZIAZKO MERKATURATZAILEA	LOGOA	ENPRESA TALDEA	ENERGIA BALIABIDEAK
Curenergía	COMERCIALIZADOR DE ULTIMO RECURSO GRUPO IBERDROLA	Iberdrola	Argindarra eta Gasa
Baser COR	IJBASER GRUPO BENERGIA	Total Energies	Argindarra eta Gasa
Comercializadora Regulada	comercializadora regulada GRUPO NATURGY	Naturgy	Argindarra eta Gasa
Energía XXI	energía XXI	Endesa	Argindarra eta Gasa
Régsiti	Régsiti Comercializadora Regulada	Repsol	Argindarra
CHC COR	comercializador de referencia energético GRUPO CHC	CHC	Argindarra

Merkatu askea: 1997 eta 2009 urteen artean egindako energia merkatuaren liberalizazio prozesuaren ondorioz sortu zen. Bertan **hainbat konpainia merkaturatzailek** lan egiten dute, **hainbat tarifa desberdin** eskainiz.

TARIFA ARAUTUAK

Merkatu arautuan tarifa bakarra dago energia baliabide bakoitzarentzako. **Historikoki** tarifa **ekonomikoenak** izan dira. **Gasarenaren kasuan hala da** oraindik, **argindarrarenak** garestitze eta merkatze **aldiak** izaten ditu. Tarifa arautuek **ez dute permanentzia edo zerbitzurik.**

TUR: Azken Baliabideko Tarifa (Tarifa de Último Recurso gaztelaniaz), **gas naturalaren tarifa arautua** da. **Prezioak hiru hilean behin eguneratzen** ditu gobernauak.

PVPC: Kontsumitzaile Txikiari Borondatezko Prezioa, Precio Voluntario al Pequeño Consumidor (PVPC) gaztelaniaz, **argindarraren tarifa arautua** da. **Prezioak orduro aldatzen dira.** Eguneko prezioak ezagutzeko:

<https://www.esios.ree.es/es/pvpc>



Energia Bulegoa

OARSOALDEA

Oarsoaldea2025



Olibet 6, Erretereria.

943 34 41 60

energia@oarsoaldea.eus

www.oarsoenergia.eus

TARIFA ASKEAK

Merkatu askean **tarifa ugari eta anitzak** aurki ditzakegu bai gasarentzako zein argindarrarentzako.

Prezio finkodunak (1, 2 edo 3 prezio ezberdinekin) **edo idexatuak** izan daitezke (prezio aldakorra dutenak PVPC tarifa arautuaren antzera). **Permanentziarekin edo permanentziarik gabek.** **Deskontuekin edo** deskonturik **gabek.** **Zerbitzuekin edo** zerbitzurik **gabek.**

Merkatu askean **prezioak merkaturatzaileek jartzen dituzte euren estrategien arabera,** eta **oso desberdinak aurki ditzakegu** eskaintza batetik bestera. **Merkaturatzaileekin negoziatu** egin ditzakegu tarifen baldintzak.

